

CARLOS GARAIKOETXEA
EAEko lehendakari ohia

«Nik neuk lagun mina galdu dut»



«Martinen heriotzarekin, Euskal Herriak aberztale eredugarri eta euskaltzale bikainenetako bat galdu duela uste dut. Eta nik neuk adiskide mina eta Eusko Alkartasuneko alderdikide garrantzitsua galdu dut. Martinek bere bizitza izugarri lan egin zuen euskararen eta aberriaren alde, eta, horregatik, urte asko atzerrian bizi izan beharrean gertatu zen. Gainera, azken garai hauetan Espainiako epaileen arazo lotsagarriak jasan zituen. Martin beti gogoan izango dugu».

RAMON LABAIEN
Donostiako alkate ohia

«Gure historiari zentzu berri bat eman dio»



«Martin Ugalde, aurren-aurrena, lagun bat izan da niretzat; bigarren, euskalduna; eta hirugarren, abertzale bat. Hiru gauza horiek niretzat gizon berezi bat egin dute. Martin Ugaldek meritu berezi bat izan du: gure historiari zentzu berri bat eman dio. Berelanak horretan laburtzen dira, gure historiari zentzu berri bat ematea; ez nuke esango nazionala denik, baina gure herri kontzientzia esnatzen duen historiaren interpretazio bat egin du, eta horrek merezi du gaur eta betiko eskerrak ematea».

IMANOL MURUA
Gipuzkoako diputatu nagusi ohia

«Gizon apartekoa zen»



«Gizon moduan apartekoa izanik, abertzaletasuna eta euskaltzaleatasuna barruan zeramatzan. Hori enaldebortkatu eta sufritu beharra izan zuen. Osogizintza eta maitagarria zen. Beragan nire aitaren irudia ere ikusten nuen. Bere nortasun agiria abertzaletasuna eta euskaltzaleatasuna izan ziren, eta kontsekuente izan zen bere ideiek beti. Tamalez, azken denboretan berari, emazteari eta familiari gezurrez beteriko injustizia egin diote. Abertzaletasuna eta euskaltzaleon omenaldi guztiak merezi ditu».

XABIER KINTANA
Euskaltzaindiko idazkariordea

«Gogo-bihotzetan irauen du betiko»



«Martin Ugalde Orradre gerrako belatunaldiaren adibide eredugarrietako bat izan da. Gerra zibilaren ondorioz bere familia zatikatzan ikusi zuen, erbestealdi luze eta mingotsa dastatuz. Gaztaro osoa Venezuelaren eman ondoren, ez zituen horregatik bere euskal erroak inoiz galdu, eta euskara eta euskal gaiak landu zituen. Ezagutu dugun guztiok adiskide ona galdu dugu, solaskide atsegin eta umila, euskaltzale sutsua batez ere, gizontasunaren eta euskalduntasunaren eredu maitagarria. Goian bego. Gogo-bihotzetan ere betiko irauen du».

IRITZIA Iñaki Uri

Egunkaria SAKO Administrazio Kontseiluko kontseilari ordezkaria

Malkorik gabe

Ez zait malkorik geratzen Martinen heriotzan. Denak bota nituen *Egunkaria* itxikitakoan guardia zibilek Martin hil zela esan zidatenean, tortura eta tortura artean.

Hobe. Begiak busti gabe gogoratuko dut Martin. Gizon osoa. Bizitza honetan egin beharrekoak egin eta gero, Heriari beldurrik ez ziona. Kitatuak zituen bizitzarekiko zorrak. Berak bere buruari jarritako zorrak, jomugak, edo apustuak. Gutxi ezagutuko dituzu lasaitasun horrekin Txingudiko itsasoari begira. Muga dugun horretan mugarik ez dela jakinaren gainean. Bizitzak hiltzea dakarrela argi izateak dakarren lasaitasunaren jabe. Lasai.

Bizi oso bat eta obra oso bat utzi dizkigu atzean. Irakurriak nituen batzuk, eta kartzelaldiak beste batzuk irakurtzeko beta eskaini dit. Etorriko dira aztertuko dutenak. Esango nieke ezagutu nuen pertsona, gizon fina, sentikorra eta ona erabat antzeman daitekeela bere idatzietan. Historia arloan, literaturan nahiz kazetaritzan egindakoak oso kontuan hartzekoak izan dira gure aurreko belaunaldiarentzat, geuretzat eta ondoren datozentzat.

Herrigintzan, Euskal Herrigintzan, Tradizioa eta Historia falta zituen. Han joan zen horiek bilatzera eta lantzer. Literatura eta Modernitate ere behar zituen gure euskara zaharra biziberritzeko, eta hor jorratu zituen. Maisuki jorratu eta eder asko uzartu zituen zaharra eta berria.

Gerrak eraman zuen Ameriketako erbestera. Han kazetaritza hautatu zuen lanbide gisa ahal izan zuenean. Literatura maitale gisa. Venezuelako espainiera erabili eta gorenara jo zuen horretan.

Baina Martin ez zebilen lorietarako. Erbestean zegoen eta herriratu beharra zeukan. Euskal Herriak osatu beharra zeukan. EAJn itzaleko eta isilpeko lanean ibili beharko bazuen ere. Herria zeukan egiteko eta askatzeko, ez bakarrik literatura bat edo estilo bat.

Adorea eta kemena behar da familia osoa hartu eta Ameriketatik Euskadi izan nahi zuen batera itzultzeko. Loriatik lanera itzultzeko. Erabakiek egiten badute pertsona bere bizitza jitean, Martin bezalako pertsona gutxi agertuko zaizu, hain erabaki sendo eta bere pentsakizunarekin hain bat datorrena.

Deia-n, Jauralaritza eta EAJn arazoa sortuko zuen behin eta berriz, euskara sustatzeko nahikoa egiten ez zutela eta. Halaxe ezagutu genuen guk. Eusko Jauralaritza Euskara Sustatzeko zuzendari zela. Eztabaida bizian mahai-inguru eta hitzaldietan. Epelak eta bi entzun behar izan zigikigun. Norik esango zigun orduan gurekin batera etorriko zela *Egunkaria* sortzera. Norik, bera izango zela *Egunkaria*-ko lehendakaria. Baina halaxe erabakitzen zuen Martinek. Erosotasunaren orde, konpromisoa. Diru seguruaren orde, apustua. Zubi izan genuen belaunaldien artean. Zubi, abertzaletasuna ulertzeko ikuspegiaren artean.

Egunkaria izan baldin bazen egia bihurtutako bere ametsa, Lizarrar-Garaziko garaia izan zen ezagutu nion azken poza eta itxaropena. Ahalegin haren ondorioz beti borrokatutako Euskadi hori ikusteko ilusioa piztu zitzaion.

Gero etorri ziren etenak. Gero *Egunkaria*-ren itxia. Gero etsipena zainetarinari sartu nahi izan zigutenekoa.

Martinen adorea eta kemena geratzen zaizkigu guri, bere obrarekin batera iparrorrazat gisa. Euskal Herri askea eta euskalduna zor diogu Martini. Maitasunez eta malkorik gabe.

Martin bere obra da. Pentsatu, sentitu eta bizi ohi duen guztia idatziz utzi du Martinek. Bere obra irakurtz Martin osoa eza-zagutu dezakegu. Autobiografia bat da.

Eta aukera hori izango dugu.

Oraingoz ezagutzen dugun Martin ez da osoa. Askok, erditik gora falta zaigu ezagutzeko. Lau urte barru Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzari esker egin ahal izango dut, egin ahal izango dugu, bilketa lan hori. Eta Martinen borondatea zen bezala, jendearen eskura utziko da, normahiren esku. Berriz gauzatu da Martin Ugaldek esaten zuena: Martin Ugalde Herriarentzat debalde.

Martinen lan guztien bilketa ez da ametsa, bidean dagoen errealitatea da. Lau urte barru burutuko dugu. Martinen ametsa zen, eta gure aldetik omenaldi ederra, bere obra osoa Martin Ugalde Kultur Parkean jendearen eskura egon dadila lortzea. Unibertsitateak, herriko militantek, kultur eta euskaltzaleak kontsultatu eta aztertu ahal izan dezan. Espero dezagun Del Olmoko ekarri zigun amesgaiztotik libratzen garenean Martinen amets hori egia bihurtzea. Hau da, Martin Ugalde Kultur Parkea izatea Martinen obra kokatu, elikatu, dinamizatu eta lau haizeetara barreiatu duena.

Lekuko naiz eta berma dezaket zein handia eta sakona zen proiektu horrek Martini ematen zion poza. Azkenaldian jabetua zegoen Martin biziadiko fisiko-tenporala bazihoakiola, ez zegoela luzarorako gure artean fisikoki. Baina idazle argi bezala bazekien irauteko, betiko bizitzeko modu bakarra bere obra

IRITZIA Joan Mari Torrealdai

Egunkaria SAKO Administrazio Kontseiluko lehendakaria eta Martin Ugalderen biografoa

Martin Ugalde ez da hilko

zela, baina obra horrek jendearen eskura behar zuela, ezaguna. Martin artista zen, eta inork jakitekotan artistak daki nola luzatzen den bizitza mundu honetan hil ondoren ere.

Esan dut arestian Martinen obra, azken batean, autobiografia luze bat dela. Berak bizi, sentitu eta ikusten zuena idatzi du Martinek. Bere bizitzako zati bat ez dagoenean, bere ikuskera dago. Erreportaiarik urrutikoenean edo artikulurik asepticonean ere badago Martinen zerbaite bertan. Ez baita idazle abstraktua, bizitzaren kronista baizik.

Bere obran kontatzen da abertzale bezala zenbat sufritu zuen. Francoren kontra egin zuen borroka, bere ahaleginak abertzaletasuna eta alderdia berritzeko eta modernizatzeko. Bere saioak abertzaileen batasuna edo elkarlana lotzeko. Ida-

tzita daude Caracaseko bere «beste» aberriari eman zizkion maitasun frogak, bere obra literarioaz gainera, noski. Bere idazlanetan ageri dira Euskal Herriari itzultzea zergatik eta nola erabaki zuen. Hitz larritan ez dakit baina lerro artean irakur daiteke hor zein egoera ederra utzi zuen atzean (*El Dorado*), eta ustez bere herrira itzultzen zelakoan nola etorri zen basamortu kulturalera, zentsuraren erreinura eta ez bera eta ez bere obra ezagutzen zuen «bere» herrira. Alegia, nola hasi zuen bizimodu berri bat 48 urterekin, ofiziorik eta dirurik gabe.

Berak idatzita dakigu hona itzuli zenean zer aurkitu zuen: zentsurapeko herri desinformatu bat, bere nortasunaren kontzientziarik gabe. Eta berak dio nola hasi zen, hutsuneak bete-zearren, historia idatzen, elkarrizketak egiten, euskaldun informatuen bidez herriaren kontzientzia indartzen.

Idatzita utzi duelako dakigu nola itzuli zen 1969an euskaraz bizitzera eta idaztera, eta nola lortu zuen urte asko pasatu eta gero. Lerro artean irakurtz dakigu oeko hamarkadan euskaraz bakarrik idatzi duela. Behin eta berriz idatzi du zergatik, nola eta zertarako sartu zen *Euskaldunon Egunkaria*-ko abenturan, Joxemiren sua egiazkoa zela sinetsiz.

Idatzita utzi ez duena da nola hil nahi izan duen Del Olmo epaileak, *Egunkaria* itxiz, bere lagunak atxilotu eta bera eta bereak pertsegitu. Kontuak blokeatuta eta inportatugai dela hil da Del Olmoren Martin. Baina gurea, gure Martin ez da hil, eta ez da hilko.